

21. FITXA. Ibilgailu arinen flotak elektrifikatzeko proiektuetarako pizgarrien programa (MOVES FLOTAS)

Nori zuzenduta: Mota guztietako enpresak // **Toki Erakundeak,** Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren **urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2.2 artikulua**ren arabera, eta **autonomia erkidego batean baino gehiagotan jarduten dutenak**

Sartzeko esteka: Eskabideak [IDAE](#)ren bidez

Erreferentziazko arauak: [TED/1427/2021 Agindua](#)

Eremuak: Ibilgailu arinen elektrifikazioa

Zenbatekoa: 50.000.000 €

Aurkezteko amaiera-data: 2022/03/21

Laburpena

Programa honen helburua da **autonomia erkidego batean baino gehiagotan diharduten** ibilgailu arinen flotak elektrifikatzeko proiektuak sustatzea. Elektrifikatzeko, ibilgailu elektrikoak eta erregai-piladun ibilgailuak erabiliko dira. Proiektuek, errekuntza-ibilgailuak ordeztuko dituzten ibilgailu elektrikoak erosteaz gain, barne har dezakete enpresaren instalazioetan flota berria kargatzeko behar den azpiegitura jartzea, eta baita flotak kudeatzeko sistemak erostea edo egokitzea ere, besteak beste, ibilbideen kontrola digitalizatzeko eta enpresako langileei trebakuntza emateko, flotaren elektrifikaziorako trantsizioa egin ahal izateko.

Programak mugikortasun efiziente eta jasangarriaren sustapena osatzen du, zeina mugikortasun efiziente eta jasangarriarako programen hiru edizio hauek argitaratuz hasi baitzen: MOVES I programa, MOVES II programa eta MOVES III programa —otsailaren 15eko 72/2019 Errege Dekretuaren, ekainaren 16ko 659/2020 Errege Dekretuaren eta apirilaren 13ko 266/2021 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, hurrenez hurren—.

Onuradunak

Laguntza hauen onuradunak honako hauek dira:

- Nortasun juridiko propioa duten enpresa mota guztiak (Mikro, Txikia, Ertaina eta Enpresa Handia).
- Sektore publiko instituzionala**, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2.2 artikuluan aipatzen dena.

Gastuen aldi hautagarria

Laguntzak **ERAGIN SUSTATZAILEA** du eta honako hauek soilik izango dira hautagarriak: laguntza-eskaeraren erregistro dataren ondoren egindako inbertsioak eta, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita, gehienez ere, **18 hilabeteko** epean gauzatzen eta justifikatzen diren inbertsioak.

Jarduera-lerroak

Honako jarduera hauek lagundu daitezke diruz:

- 1. jarduera: Ibilgailu elektrikoak eta erregai-piladun ibilgailuak erostea.
- 2. jarduera: Flotaren aparkalekuan karga-puntuak instalatzea, enpresa elektrifikatzeko proiektuaren zati gisa
- 3. jarduera: Flota elektrifikatzeko eraldaketa kostuak.

Ezinbestekoa da, gutxienez, 1. jarduerarako laguntza eskatzea, hau da, ibilgailu elektrikoak edo erregai-piladun ibilgailuak erosteko laguntza eskatzea; 2. eta 3. jarduketak, berriz, aukerakoak izango dira.

Laguntzen zenbatekoa eta laguntza motak

1. jarduera. Ibilgailu elektrikoak eta erregai-piladun ibilgailuak erostea

Motorización	Categoría	Autonomía en modo de funcionamiento eléctrico (km)	Limite precio venta vehículo (euros) antes de IVA o IGC	Ayuda (euros)				
				Sin achatarramiento		Con achatarramiento		
				PYME	Gran Empresa	PYME	Gran Empresa	
Pila combustible (FCV, FCHV)	M1	–	–	2.900	2.200	4.000	3.000	
PHEV, EREV, BEV,		Mayor o igual de 30 y menor de 90.	45.000 (53.000 para vehículos BEV de 8 o 9 plazas)	1.700	1.600	2.300	2.200	
		Mayor o igual de 90.		2.900	2.200	4.000	3.000	
PHEV, EREV, BEV, Pila de combustible	N1	Mayor o igual de 30.	–	3.600	2.900	5.000	4.000	
	L6e	–		800	600	1.000	800	
	L7e			1.200	1.000	1.500	1.200	
	L3e, L4e, L5e, con P ≥ 3kW	Mayor o igual 70.		10.000	750	700	950	900
	L1e, L2e	Mayor o igual 60.		6.000	250	200	300	230

Nota: La autonomía en modo de funcionamiento exclusivamente eléctrico se define como la distancia capaz de recorrer el vehículo utilizando exclusivamente la energía acumulada en sus baterías, y que declara el fabricante en la documentación técnica y comercial del vehículo.

2. eta 3. jarduerak.

Laguntzaren intentsitatea diruz lagundu daitezkeen kostuen % 40 izango da, eta ehuneko 10 puntu handitu ahal izango da enpresa ertainei emandako laguntzen kasuan, eta ehuneko 20 puntu laguntzak mikroenpresei eta enpresa txikiei ematen bazaizkie.

Pizgarrien programara aurkeztzen diren proiektuek **laguntzaren gehieneko muga** bat dute: **1. jardueraren** kasuan, abenduaren 17ko TED/1427/2021 Aginduaren I. eranskinean zehaztuta dago eta **eskabide bakoitzeko 500 ibilgailukoa** da. **Gutxienekoa**, berriz, **eskabide bakoitzeko 25 ibilgailukoa** da. **2. jarduerari** dagokionez, **pizgarridun karga-puntuen** kopurua **ezin da pizgarridun ibilgailuen kopurua baino handiagoa izan** eta, **3. jarduerari** dagokionez, eskatutako laguntza osoaren **% 20aren baliokidea izango den gehieneko laguntza** dago ezarrita.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

1. jarduera. Ibilgailu elektrikoak eta erregai-piladun ibilgailuak erostea.

1. Diruz lagundu daitezkeen kostua ibilgailu berriak erostearena da, zuzenean edo finantzaketa-eragiketen bidez, bai leasing finantzario bidez, bai renting bidezko errentamenduaren bidez (leasing operatiboa ere esaten zaio). Ibilgailu berriak izan behar dira, eta Espainian lehen aldiz matrikulatuta egon behar dira laguntzaren onuradunaren izenean, renting kasuetan izan ezik, kasu horietan renting enpresaren izenean matrikulatuta egon baitaiteke. Diruz lagundu ahal izango da, halaber, M1, N1, L3e, L4e eta L5e kategorietako ibilgailu elektrikoak eta erregai-piladun ibilgailuak erostea, deialdian finkatutako gehieneko antzintasunarekin —Espainian lehen aldiz matrikulatzen direnetik eskabidea erregistratzen

den egunera arte—, betiere ibilgailu horren aurreko titularrak edo titularrek laguntzarik jaso ez badute.

2. **Ezingo dira finantzatu** 50 gCO₂/km baino gehiagoko emisioak dituzten M1 eta N1 ibilgailuak eta 0 gCO₂/km baino gehiagoko L kategoriako ibilgailuak.
3. Pizgarriak jaso ditzaketen ibilgailu modeloak IDAeren Ibilgailuen Datu Basean agertu behar dira (<http://coches.idae.es/base-datos/vehiculos-elegibles-programa-MOVES>).
4. Ibilgailuak renting bidezko finantzaketa-eragiketen bidez erosten direnean, honako baldintza hauek bete beharko dira laguntza jaso ahal izateko:
 - a) Dagokion errentamendu-kontratuak gutxienez bi urteko iraupena izatea, indarrean sartzen den egunetik zenbatzen hasita.
 - b) Errentamendu-kontratuak berariaz ezartzea errentaria dela ematen den laguntzaren azken hartzailea.
 - c) Kontratuak jasotzea, ordaintzeke dauden kuoten batura laguntzaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, renting konpainiak azken hartzaileari ordaindu beharko diola hari ordaintzeko dagoen laguntzaren soberakina errentamendu-kontratua amaitzen denean.

2. jarduera. Flotaren aparkalekuan karga-puntuak instalatzea, enpresa elektrifikatzeko proiektuaren zati gisa

Laguntza-eskabidean 1. jarduera sartu behar da. Horrez gain, diruz lagundu ahal izango dira ibilgailu elektrikoaren bateriak kargatzeko sistemak, zuzeneko erosketaren modalitatean. Berritzen den flotaren erabilera, nagusiki, pribatua izan behar da.

Diruz lagundu daitezkeen kostutzat hartzen dira proiektua, obra zibila, ingeniarietako eta obra-zuzendaritzako kostuak, kargatzeko azpiegituraren beraren kostua, edozein elementu elektrikoaren instalazioa edo eguneratzea, barne hartuz, hala badagokio, transformadorea, banaketa-sarera konektatzeko lanak, ebakitze- eta transformazio-guneak eta erdi-tentsioko hargunea, beharrezkoak direnak karga-azpiegitura sarera edo elektrizitatearen ekoizpen edo tokiko biltegitate unitatera konektatzeko, eta beharrezkoak diren instalazio-kostuak eta horiekin lotuta dauden eta beharrezkoak diren baimenen kostuak. Energia elektrikoa sortzeko edo biltegitatzeko erabiltzen diren ekoizpen berriztagarriko edo tokiko biltegitate-unitatearen kostuak, halakorik badago, hautagarriak izango dira, soilik, karga-puntura bideratuta badaude eta karga-estazioaren zati gisa har badaitezke.

Beraz, **ez dira hautagarriak izango** sarera konektatutako energia berriztagarria ekoizteko unitateak, karga-puntuari partzialki lotuta badaude ere. Ez da diruz laguntzeko modukotzat joko kontagailu adimendunak instalatzea. Kontagailu horiek konpainia elektrikoek eman beharko dizkiete azken erabiltzaileei, alokairu-erregimenean, orokorrean.

3. jarduera. Flota elektrifikatzeko eraldaketa kostuak

Laguntza-eskabidean 1. jarduera sartuta dagoen kasu guztietan honako jarduera hauek ere hautagarriak izango dira:

1. Flota kudeatzeko sistema erostearen eta ezartzearen kostua, edo lehendik dagoena egokitzearena.
2. Enpresa eskatzailearen gidariei prestakuntza-ikastaroak ematearen kostua, flota elektrikoaren eraginkortasunez gidatzeko.

Ez dira diruz laguntzeko modukotzat hartuko kostu propioak (langileak, funtzionamendua edo gastu orokorrak).

Bestelako informazioa

Onuradunek berehala berri eman beharko diote IDAeri, baita eskabidea izapidetzen ari diren bitartean ere, hasiera batean, eskabidearekin emandako dokumentazioan, jakinarazitako baldintzetan egondako edozein aldaketa gertatzen bada.